

# BERGARA

127. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara


1993, azaroak 19

**ETXE  
ZAHARREN  
BIRGAITZEA,  
BEHARREZKO  
ZIRUJIA**

**IZASKUN  
JIMENO ETA  
LUPE  
OLABARRIA  
25 URTE  
IRAKASTEN**

**KIROLAK**

**BERGARAKO  
GIMNASIA  
ERRITMIKO  
TALDEA  
ESPAINIAKO  
TXAPELKETARA**



**GAZTETXEA  
ITXITA**



**IBIL ZAITEZ GOI MAILAN**



OPEL AUTO DENDA OFIZIALAK. DENBORAREN PODERIOZ ONENAK.

Martxan jarri auto baten benetako balioak.  
Martxan jarri ekipamendurik apartena.  
Martxan jarri segurtasun neurri erosoena.  
Martxan jarri Opel Vectra bat. Martxan.


**300.000** Pezeta\*  
**BITARTEKO  
DESKONTUA**

\*Stock-can dauden autoentzako  
promozioa hilabete honetan.


**OPEL**

**TALLERES  
OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g.  
Tfnok: 76 33 44 / 45 / 46  
**BERGARA** (Guipuzkoa)  
Erakusketa **ARRASAT**En:  
Loramendi, 2. Tfnok: 79 05 86  
**DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA**  
**ETA GOIERRI GARAI**rako  
kontzesionaria



**IRALA**  
**AHOLKULARITZA**



- **TRAMITAZIO SOZIAL ADMINISTRATIBOA**•
- **TRAMITAZIO ETA KUDEAKETA FISKALA**•
- **KONTABILITATE OROKORRA**•
- **KONTABILITATE JURIDIKO-LABORALA**•
- **ASEGURUAK**•

**Irala kalea, z/g BERGARA. Tfnoa: 76 33 72. Faxe: 76 57 85.**

## **GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA**

*CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, ZUBIZARRETA, ZULUETA,  
ESTEFANO, LABORRA eta RUIZ DK.ak*

- **Azterketa ginekologiko osoak**
- **Minbiziaren aurretiko diagnostikoa**
- **Hauraldiaren kontrola**
- **Txekeoak**
- **Bularreko gaitzen unitatea**
- **Mamografiak**
- **Antzutasuna**
- **Antisorkuntza**
- **Menopausiaren tratamentua**
- **Dietak**
- **Sudurra, eztarria, belarria**
- **Analisi klinikoak**

**GUZTI HAU  
ARRASATEN  
BERTAN,  
URRUTIRAGO  
JOAN GABE!!**



Zerkaosketa, 17 etxabea.  
ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

**Argitaratzailea:**

Jardun Elkarte

Errotalde Jauregia, 20.570  
Bergara. ☎ 76 08 19

**Berrigara**

Tfnoa. eta Faxa: 76 03 97

**Babeslea:** Bergarako Udala.

**Zuzendaria:**

Gorka Elorza.

**Erredakzioa**

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil  
eta Mikel Elkoroberezar.

**Maketazioa:**

Eneko Azkarate eta Eduardo  
Mendibil.

**Publizitatea eta harpidetzak:**

Alex Azkarate eta Eburne  
Arenaza. ☎ 76 03 97

**Erredakzio-kontseilua:**

Inaki Eraña eta Alex Labaien.

**Kolaboratzaileak:** Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel  
Angel Elkoroberezar, J. M.  
Elexpuru, J. Oregi, Maripi  
Laskurain, N. Alzelai, Ainhoa  
Lete, Jon A. Bengoa, M.  
Lizarralde, M. Belastegi, A.  
Aretxaga, A. Bikuna, A.  
Madinabeltia, J. eta A. M.  
Goenaga.

**Argazki laborategia:**

Pol-Pol Argazki Taldea eta Kiñu.

**Komikia eta marrazkiak:** Josu  
Okina eta Antonio Arrillaga

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Onati).

**Banaketa:** Txantxangorri Taldea.

**Copyright:**

BERRIGARA


**Tirada:** 3.500 ale.

**Lege gordailua:** SS 50/ 91

**ISSN:** 1130-6599

**BERRIGARA** ez du bere gain har-  
tzen aldizkarian adierazitako esa-  
nen eta eritzien erantzunkizunik.

## PROTAGONISTAK



**Hotza** heldu da aste honetan Euskal Herri osora. Luis Mari Agirrek eman dizkigun datuen arabera, asteartean, Bergaran, 0°C izan genuen tenperaturik baxuena eta asteazkenean, berriz, zero azpitik gradu bat markatu zuen termometroak. Temperatura hauek uda

osteko baxuenak ditugu. Hala ere, Agirrek BERRIGARARI adierazi dionaren arabera, 1988eko azaroaren 21 eta 22an azken urteetako udazkenetako tenperaturarik baxuenak ezagutu genituen. Orduan, 10 gardu zero azpitik markatu zuen termometroak.

## Uda osteko tenperaturik baxuenak izan ditugu aste honetan

## ITURRI ONETIK

### Federazioaren ereserkia prest

Bergarako Udal Musika Banda, Orfeoia eta Aritzeta abesbatza, Gipuzkoako Futbol Federazioaren ereserkia grabatzen izan ziren igandean IZ estudioetan. Valen Moñux eta Alfredo Glez. Chirlaquek konposatu dute himnoa eta Euskadiko selekzioak Gabonetan Anoetan jokatu duen partiduan aurkeztuko da. Aurretik, astebete leheneago edo, Maria Cristina hotelean Federazioak eskainiko duen afarian ere abestuko dute.

## ESAN DUTE

"Ziklokrosaren egoera txarrean erru handia dute errepideko ekipoetako zuzendariak. Bergaran bi kadetek meatxuak jaso dituzte, ziklokrosa egiten badute, ekipotik bota egingo dituztela esanez".

### IÑIGO IGARTUA Txirrindularia EUSKADI IRRATIA

"Txerri kiloko 20 pezeta galtzen ari da baserritarra gaur egun".


### BALENTIN GABILONDO ENHEko Gipuzkoako presidentea EUSKADI IRRATIA

"Herritarrentzat intsumisoak ez dira gaizkileak nahiz eta, gaizkileei bezala, Kode Penala ezartzen zaien".

### IÑIGO URRUTIA Kazetaria DEIA



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Eusko Jauriaritzako Kultura eta  
Turismo sailaren laguntza jaso du

Atsedeen zentrua

# LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

# ZUBIETA

## elektragintza

- ✓ Motorren bobinaketa
- ✓ Era guztietako instalakuntzak

Kruz Gallastegi, 2 behea  
Tfnoa: 76 23 48

# IRRINTZI

## Kafetegia

Kafea da gure berezitasuna

☎ 76 20 50



**PARQUE JURASICO**

Ostirala: 22.30

Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30, 22.15.

Asteartea: 19.30.



**LOS AÑOS OSCUROS  
URTE ILUNAK**

Osteguna: 19.30.



**Zinea**

▼▼ Dinosaurioak Bergaran. **Steven Spielberg** egiten duen guztia arrakasta bihurtzen da berehala. Horixe gertatu da fantasia eta *thrillera* nahasten duen filme honekin. **Sam Neill, Laura Dern, Jeff Goldblum** eta dinosaurioak protagonistak.

▼▼ **Arantxa Lazkanoren** filme hau Donostiako Zinemaldiko Zabaltegi sailean aurkeztu zen. Euskara eta gaztelania tartekatuz, orain dela 25 bat urteko Euskal Herriaren ikuspegia ematen zaigu.

▼▼ **Udal Musika Bandak** Santa Zezilia eguna ospatzeko kontzertua eskeiniko du igandean, 12.30etan, Novedades aretoan. 10etan Mizpirualdeko kapillan meza entzun ondoren, kalejira egingo da. Novedadeseko kontzertuan, Wagner, Jimenez edota Williamsen lanak eskeiniko dira.

**Deiak**

▼ **Rock kontzertua.** Etsaiak MCD eta Daxka ostiralean, hilak 19, 19.00etan Institutuan.

▼ **Musika.** Mikel Markez, Anje Duhalde, Niko Etxart eta Lanperri eta Miliku. Ostiralean, hilak 19, Arrasateko Kiroldegian, 22.00etan.

▼ **Jubilatu**en irteera Lizarrako San Andres feriara abenduaren 1ean. Izen-ematea 2.225 pta.

▼ **Hitzaldia.** "Bularreko min-biziaren antzemate goiztiarra". Hizlaria: M. Jesus Mitxelena. Asteazkenean 16.30etan Kultur Etxean.

▼ **Bertso afaria** Elgetako Ostatu Jatetxean gaur, azaroak 19, J. Lizaso eta J. Agirrerekin. 3.100 pta.

**Ogia**

▼ **Igandea 21:** Mizpildi.

**GOARDIAKO FARMAZIAK**

- ▼ **Larunbata 20:** Mozos/Azkoaga.
- ▼ **Igandea 21:** Mozos/Español.
- ▼ **Astelehena 22:** Camacho/Corcuera.
- ▼ **Asteartea 23:** Puy/Irizar.
- ▼ **Asteazkena 24:** Guallar/Amezua.
- ▼ **Osteguna 25:** Estella/Ruiz.
- ▼ **Ostirala 26:** Mozos/Azkoaga.

**HARATEGIA**

**ANTIA**

**URDAITEGIA**

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

**MAKAILO**

**Makailau ETXEA**

kazuelak gertatzen ditugu

Ibargarai 15



DEBA

**GARAIA**

INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar

T. Aranzadi, 2 behea.

76 21 80  
76 06 37



▼▼ **Argazki rallya** izango da igandean Bergaran. Pol-Pol Argazki taldeak antolatuta, izen-ematea Pol-Poleko bulegoan bertan egin ahal izango da igandean goizeko 8.30etatik 9.30etara. Partaideek 35 mm.ko diapositibak (ASA 100) erabili beharko dituzte eta, 1.000 ptaren truke, antolatzaileek banatuko dituzte roiloak. Gaiak inskripzioa egiterakoan emango dira ezagutzera eta karreteak arratsaldeko ordubietan entregatu beharko dira. Epaimahaiaren erabakia abenduaren 4an, larunbata, arratsaldeko 7etan jakin araziko da eta proiektzioa eta sari banaketa, berriz, abenduaren 11n egingo da arratsaldeko 7.30etan Pol-Pol Mendizale Taldearen aretoan.



▼▼ **Bergara K.E. eta Mutrikuk** lidergoa izango dute jokoan igandean Agorrosinen jokatu den neurketan. Javi Perezen mutilek lehen postuan dauden mutrikuarrak bi puntutara dituzte. Partidua elkarteari laguntzeko eguna izendatu du B.K.E.ko direktibak.

## KIROL KARTELDEGIA

### FUTBOLA

#### BERGARA-MUTRIKU

Preferente maila.

Larunbata, 15.30. Agorrosinen.  
Klubaren Egundia izango da.

#### BERGARA-ARRASATE

Jubenilak.

Igandea, 10.00. Ipintzan.

#### ESKOLA KIROLA

Futbol-7 txapelketako partidua  
larunbat goizean Ipintzan.

### ESKUBALOIA

#### BERGARA-ZARAUZ


Kadete mailako neska

Larunbata, 16.30. Kiroldegia.

#### BERGARA-DON BOSCO

Kadete mailako mutilak

Larunbata, 18.00. Kiroldegia.



### PELOTA

#### BERGARA-SEGURA

Eskuzbinakako Kluben Arteko  
Txapelketa. Final laurdenak.  
Ostirala, 22.00. Udal Pelotalekuan.

# ONENA

## TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA

# ARRASATEARRA

Gure berezitasuna bazkariak.  
Eguneko menua daukagu.

## Taberna

Zubiaurre 22, Tfnoa: 76 20 19 BERGARA

**Gaur Josepi, bihar...**

Azken asteburu honetan berriz ere berri mingarri bat jaso dugu. Josepi Artola presoaren arreba, istripu baten ondorioz larriki zauriturik aurkitzen da. Hala ere, horrelakoak gertatzea ez da batere harrizkoa. Astebururo Bergarako hemezortzi preso senide eta lagunok milaka kilometro egiten ditugu gure senide presoak ikusi ahal izateko: Algeciras, Avila, Jaen, Valdemoro, Alcalá, León, Herrera, Puerto Sta. María, Orense, La Coruña, Canarias, París, Venezuela eta Panamá dira gure helmugak. Nor harritu beraz horrelako gehiago ez gertatzeaz? Noski!, gure presoak horrela sakabanatuta egoitea ez da inongo kasualitatea. Senide eta presoak zigortzeko beste neurri bat gehiago baino ez da. Eta esan behar da, gainera, neurri hau guztiz ilegala dela (L. O. 1/1979 art. 12.1).

Senideok gogorki salatzen dugu dispersioa eta lerro hauen bitartez guztiok neurri hauek salatzeraz gonbidatzen zaituztegu. Dispersioak heriotza eta sufrimendu gehiago baino ez baitakar herri honetara.

Presoak Euskadira, presoak etxera!!

**Bergarako Senideak**

**Gaztetxeaz**

Anaia eta biok mokoka gabiltza, elkarri gaizkiesaka auzi honen inguruan. Bergatarrengana ailegatzeko modurik azkarrena diren neurrian beharrezkoak dira protestaldiak (entzerrona eta manifak kasu). Ez, ordea, sarritan, modurik emankorra. Nik elkarrizketaren bidez irtenbiderik aurkitzen saiatzeko ordez, enfrontamendua sakontzen dutenen bidea aukeratu izana egozten diot. Berak neri berriz, hitzontzikerian erortzea, berba ugari eta lana gutxi, bide batez neure burua jainkotuz. Sokaren muturrak dira nonbait.

Ixtorioaren gorabehera guztien berri izan barik eta, beraz, honetaz jarduteko aproposena ez izateko arriskuan horra hor gogoeta bi.

Juben ixtearen aldeko apostua egin du Udalak. Hori zen Elizak arren eskatzen ziona. Bagenekien Komenio kaltetik alde egin behar zela. Hori aspalditik hilantzean zegoen eta orain epaiak zeharo akatu du. Utopiaren hazparretan auzia azkenetara eramana -duela hiru urteko azken trasladu proposamenari uko eginez-, zera jarri du begibistan: hobe txori bat eskuan ze ez bost ezkurreen. Baina, inor ez da aurreragi atzera egiteko.

Gertatua gertatu, korapiloa askatzen saiatzea alde bien ardura da.

Udalak ezin dezake hor konpon egin. Gazteek herriko beste edozein kolektibok adina eskubide du lokalen batez gozatzeko. Gaietik, oposizioak auzia armatzat erabiliaz okertu eta usteldu baino lehen, azkar bideratzea komeni zaie agintean daudenei. Gaztetxeok aldiz, lokala eskuratzeko arrazoi egokiak (eta ez dira ez makalak ez eskaxak) plazaratu beharrean daude, egitasmo aztertu, eztabaidatu eta osatuaren inguruan. Gaztetxearen aldeko mezu jatorra zabaltzeak bergarrok bihotzeratzea eta Udala zeuengantzea ekarriko luke. Bestalde, okupatzeko jokabideek ez dituzte gauzak erretuko, ezta ertzainen eskuhartzeak ere; luzatzea besterik ez dute lortuko, nik uste. Merezi du alde bietako motzegi, ahobero eta arrokerietatik libratzea tira-bira konponbideratuz lokalari eusten bazaio. Nik neuk ere anaiari bostekoa ezin ukatu.

**Ainboa Altuna**

**Tiira ba!**



# Gaztetxean entzerratuta zeuden gazteak desalojatu zituen Ertzaintzak astelehenean

*Ertzainek gazteak atera zituzten bitartean ez zen istilurik gertatu. Protestaldiak eta elizaren kontrako pintadak*

Astelehen goizean, Ertzaintzak, joan den astetik Gaztetxean itxita zeuden gazteak desalojatu zituen, Bergarako Epaitegiak joan den irailaren azkenetan Gipuzkoako Elizbarrutiaren alde emandako sententzia betez. Gogoratuko duzue, Gaztetxeak eta Elizbarrutiak lokalaren jabegoaren inguruan auzia mantendu izan dute eta Epaitegiak Elizbarrutiak lokala berreskuratu zezakeela erabaki zuen.

Asteleheneko desalojuaren ondoren, Gaztetxe kideek eta Bergarako hainbat ikastetxetako ikasleek manifestaldi bat egin zuten herriko kaleetan zehar. Udal bulegoetara ere jo zuten, Victoriano Gallastegi alkatearekin elkarrizkatzeko asmoz baina Ertzaintzak handik ere desalojatu zituen. Manifestaldian, gazteen oihuak, nagusiki, Eliza eta Udalaren aurka izan ziren. Udalak ez du Gaztetxea eta Epaitegiaren arteko auzian parte hartu nahi izan, Gallastegi alkateak bi partikularren arteko konfliktua zela adierazi bait du. Dena den, ostegunean Gaztetxe ordezkariek berarengana jo zuten lokalean jarraitzeko nahia Elizbarrutiara trasladatzeko eta alkateak baietza eman zien. Gazteak San Pedroko parrokoarekin ere izan dira Setien Donostiako Go-



Goiko argazkian gazteak eta ertzainak Barrenkalen, ertzainek gazteak Udale bulegoetatik desalojatu ondoren. Behekoan, gazteak Komenio kalean konzentratuak desalojua gertatu aurretik.

tzaiari eskakizun bera luzatzeko.

Astelehenean Gaztetxea itxi zutenetik, Ertzaintza patruila batek Gaztetxea zaindu du denbora guztian eta gazteak Plazan bildu izan dira. Asteazkenean UNEDen bilera egin zuten eta datozen egunetarako ekintzak finkatu zituzten. Gaztetxeak hainbat ekitaldi iragarri ditu aste-bukaerarako. Igandean, eguerdiko 12etan salda eta txistorra banatuko da, ordubatean txalaparta eta bertsolariak, 5etan adierazpen askatasunaren aldeko mural kolektiboa egingo da eta 6etan manifa-kalejira erreibindikatioa, malabaristak, hankapalu, txalaparta etab.ekin.



### Santa Zezilia Jubilatuetan

Bergarako Jubilatuek Santa Zezilia eguna ospatuko dute astelehenean. Eguerdiko 12etan Jubilatuetako abesbatzak lagundutako meza izango da Mizpirualde Egoitzan eta 17.30etan abesbatzaren beste emanaldi bat.

### EParen ikastaroak abenduan

Helduen Heziketa Iraunkorrerako zentruak (HHI-EPA) saskigintza, argazkigintza, ingelesa, masaja edota lehen laguntzetako ikastaroak antolatu ditu abenduaren 1etik 19ra bitartean. Interesatuak 764452 telefono zenbakira deitu dezakete.

### Euskal Ligako Mus Txapelketa

Larunbatean Euskal Ligako lehen faseko mus txapelketa jokatu da Zabala tabernan. Izen-ematea (4.000 pta. bikote bakoitzeko) arratsaldeko 4rak arte egongo da zabalik. Liga amaieran sari bikainak izango dira.



Ines Etxeberria, Alazne Irazabal, Alvaro Esparza eta Xabier Legorburu.

## Aldaketak Ongizate Zerbitzuan


*Zerbitzuak batu eta Emakumearen Zerbitzua desagertuko da*

Udaleko Ongizate Zerbitzuko ordezkariak zerbitzu honetan eman diren aldaketen berri eman zuten joan den ostegunean. Diputazioarekin sinatutako hitzarmenaren arabera, zerbitzuak bateratu eta barne antolaketa aldatu egingo da. 3 programa bereiztuko dira: *Informazioa eta Balorazioa* deiturikoa bi gizarte laguntzailek ondorengo aktuzioak finkatuko dituzte (Xabier Legorburuk San Pedroko aldea hartuko du eta Ines Etxeberriak Santa Marinakoa eramango du).

Hurrengo bi faseak: *Familia eta Elkarbizitza* batetik eta *Prebentzioa, Gizarteratzea, Lankidetzeta eta Borondatezko langileak* bestetik. Alvaro Esparza Zerbitzuko arduradunak esan zuenez, *"funtzionatzeko modua aldatuko da. Emakumearen Zerbitzua desagertu arren, zerbitzu hori eskeintzen jarraituko dugu"*. Zerbitzuan, 2 gizarte laguntzaile, enplegu eta drogomenpekotasun teknikari bana, hezitzaile espezializatu bat eta administratibo bat daude.

**Pepelu**  
**Ileapaindegia**  
 Zurradero 2, Behea.  
 Tfnoa: 76 43 07

**Amets**



- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak.
- Zango erremolkeak.
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak.

Informazioa: ☎ 78 25 92 / 78 19 50  
**AMETS TAILERRAK**  
 Berezano auzoa OÑATI

**ederTu**

*20 urte zure zerbitzura,  
 kalitatezko altzariak eskaintzen*

Barrenkale, 23      ☎ 76 29 65      **BERGARA**

**ARRAN**



**Taberna**  
 O Kruz Gallastegi BERGARA





Herriko zaharrentzako hainbat ekitaldi iragarri dira datorren asterako.

## Zaharrentzako ekitaldiak

### Hitzaldiak Jubilatuetan eta Zaharren Astea Mizpirualden

Jubilatuak eta Udaleko Drogo-menpekotasunen Prebentziorako Batzordeak *Hirugarren adina eta bizi-obiturak* ihardunaldiak antolatu dituzte. Astelehenean, *Hirugarren adinekoen bizi-obiturak* aztertuko ditu Javier Azpiri medikuak; asteartean, Joseba Marcos Osakidetzako partaidea *Tabakoa eta medikamentuekiko menpekotasunari* buruz arituko da; asteazkenean alkoholismoaren gaia aztertuko dute Alkoholiko Anonimoetako bi kideak eta ostegunean, ohitura

osasungarriari buruzko hitzaldia, guztiak bezala, 6etan Jubilatuetan.

Bestalde, Mizpirualden Zaharren astea ospatuko da. Astelehenean 5etan bingoa, asteartean 16.30etan, merienda eta tronboi laukotearen emanaldia; asteazkenean txapelketak eta soinu taldea; ostegunean diapositibak eta Orfeoi Gaztea izango dira; ostiralean *Un, dos, tres*, opariak eta Aritzeta eta, larunbatean, txokolatada eta Extremadurako taldea. Jendeak parte hartzea eskatzen dute.

### Intsumisoekin elkartasuna

Lanbide Hezkuntza eta Batxilergo institutuek greba egin zuten atzo osteguna epaitzen ari dituzten intsumiso gipuzkoarrei beren elkartasuna adierazteko.

### Elkarriren bilera

Asteartean, urriak 23, Elkarriren hitzaldi-elkarrizketa izango da 19.30etan UNEDen. Bertan, elkarte honen filosofia eta jokatzeko era azalduko da. Herritar guztiei parte hartzera gonbidatzen zaie.

### Epaiketak Madrilen

Ostegunean, hilak 25, Miguel Angel Askasibar Garitano bergararra epaituko dute Madrileko Audientzia Nazionelean. Fiskalak 7 urteko zigorra eskatu du. Epaiketan Maria Eugenia Gracia izango da testigu. Ostegunean bertan, goizeko 4retan, autobusa aterako da Frontoitik eta interesatuek Pol-Polen eman dezakete izena. Bestalde, Luis Mari Azkargorta Herreratik Leonera eraman dute eta Maria Eugenia Gracia bera Salto del Negrotik Carabanchelera.

## IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia.**  
**Bioter produktoak eta haziak.**

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

## EXLIKUN

### BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62  
BERGARA



## Ziripot

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

## MINER ardak

Biltegi telefonoa: 76 41 41

## Ardo onak, jakina

# HIRUGARREN ADINA ETA BIZI-OHITURAK

**AZAROAK 22, 23, 24 eta 25**

**BERGARA**

**AZAROAK 22**

**HITZALDIA**

astelehena

*"Hirugarren adinekoen bizi-ohiturak"*

**HIZLARIA: JAVIER AZPIRI DIAZ, Mediku Neurologoa. Psikiatra**

Tokia: JUBILATUEN ETXEA • Ordua: 18.00.

**AZAROAK 23**

**HITZALDIA**

asteartea

*"Tabakoa eta medikamentuekiko  
menpekotasuna hirugarren adinekoetan"*

**HIZLARIA: JOSEBA MARCOS FRIAS Osakidetzakoa**

Tokia: JUBILATUEN ETXEA • Ordua: 18.00.

**AZAROAK 24**

**HITZALDIA**

asteazkena

*"Alkoholismoa hirugarren adinekoetan"*

**HIZLARIAK: "ALKOHOLIKO ANONIMOAK" elkarteko bi kide**

Tokia: JUBILATUEN ETXEA • Ordua: 18.00.

**AZAROAK 25**

**HITZALDIA**

osteguna

*"Bizi-ohitura osasungarriak"*

**HIZLARIAK: DROGOMENPEKOTASUNEN PREBENTZIO ETA  
TRATAMENDUEN taldeko bi kide**

Tokia: JUBILATUEN ETXEA • Ordua: 18.00.

**ANTOLATZAILEAK:**




**FORU ALDUNDIA**  
Bergarako hirugarren  
adineko etxea



**BERGARAKO UDALA**  
Drogopenpekotasunen  
prebentziorako Udal-zerbitzua

**LAGUNTZAILEAK:**



**EUSKO JAURLARITZA**



**LANKIDE AURREZKIA**

**Lupe Olabarria eta Izaskun Jimenok aurten beteko dituzte 25 urte euskaraz irakasten. Lehena Maria Victoriak zuen akademian eta bigarrena Komenio kaleko Koldo Elizalde eskolan hasi ziren 1968an, oraindik ere euskara eskoletan debekatua zegoenean.**

**-Zelakoak ziren hasierako garai haiek?**

- Material aldetik nahiko gaizki ibiltzen ginen, magnetofoi bat erosteko ere guraso bakoitzari bost ogerleko eskatu behar izaten genien. Koldo Elizalde eskolan 90 haur ingururekin hasi ginen lanean eta eskolaurreko 3 maila genituen. Akademian aldiz 20-30 haur inguru zebiltzan eta dena euskaraz ematen genuen.

**- Noiz sortu zen Aranzadi ikastola?**

- Aranzadi ikastola 1971-72 ikasturtean hasi zen funtzionatzen. Guk beheko pisuaren erdia genuen eta beste erdia nazionaletakoez zuten. Goiko solairuan berriz Dominikoak zeuden. Haseran 5. mailara arte zegoen bakarrik, eta 4.enean eta 5.enean euskara eta erdara nahasten ziren. Euskara hutsean ikasi duen lehen promozioa orain 28 urte dituztenak dira.

**- Ordutik hona asko aldatu al da ikastolaren egoera?**

- Lehen euskararekiko kontzientziazio handiagoa zegoen eta ikasleek euskaraz hobeto hitz egiten zuten. Orain ikastolara etortzea moda bat be-

## IZASKUN JIMENO eta LUPE OLABARRIA

# 25 urte irakaskuntzan



*"Hasi ginenean ikastola ez zen legala eta inspektoreak zetozenean ezkutatu beharra izaten genuen"*

zala da, euskara ikasten dute, baina gero kalean ez da erabiltzen.

**- Hasi zinatenean espero ahal zenuten Ikastolak orain duen arrakasta lortuko zuenik?**

- Lanean horretarako genbiltzan, agian onena orain daugakun ikasle kopurua edukitzea, baina orduko kontzientziazioarekin. Hasi ginenean ikastola ez zen legala eta inspektoreak etortzen zirenean ezkutatu beharra izaten genuen.

**- Oraingo eta lehen-go ikasleen artean bala dago ezberdintasunik?**

- Umeak beti ume. Baina somatzen dugu orain-go ikasleei dena eginda eman behar zaiela. Batez ere 2. zikloan daudenei, eskolaurrean hori ez da igartzen, baina hor gurasoon interesa ere egon daiteke, denbora gehiago interesatzen bait zaigu umeak ume izaten jarraitzea.

**- Guraso eta irakas-**

**leen arteko harremanak aldatu al dira?**

- Bai, lehen guraso gutxiago zeuden eta Aranzadi ikastola makro ikastola bihurtu da. Horrekin harremanak hoztu egiten dira eta gure lanean ikastola handitzean bilera eta klasez kanpoko lan gehiago hartu ditugu, horrek gurasoekin egoteko denbora kentzen digu. Lehen ikastola guraso eta irakasleen artean aurrera eraman beharra genuen, eta orain berriz eginda dago.

**- Merezki izan dute irakaskuntzan aritutako 25 urte horiek?**

- Bai, bai, horrela izango ez balitz ez ginatke hemen egongo.

**- Irakasle eta ikasleen arteko istiluak beti izan dira. Askok aldatu dira ala berdin jarraitzen dute?**

- Istiluak beti izan dira, ez da lineala, ziklikoa da. Beti egon daiteke ikasle batekin "txokea", baina hori ez da ikaslearen errua bakarrik, biona da.

**- Zela ikusi duzue Aranzadi ikastolak pasa den maiatzean hartutako erabakia, pribatua jarraitzearena alegia?**

- Hemen ez da izan halako istilu handirik, hemendik aldamenetik pasatu da. Baina emaitzak epe luzeago batera ikusiko ditugu eta zatiketarik beti ere ez dira onak izaten.

**Zahartzaroa guztioi heltzen zaigu eta etxeei ere gauza bera gertatzen zaie. Momentu hori heltzerakoan, bertan baldintza egokietan bizi ahal izateko birgaitzea derrigorrezkoa da. Hurrengo orrietan irakurriko duzuen bezala hortarako badaude laguntzak instituzioen aldetik. Horrezaz gain, gure herrian badaude Artekalen jausteko zegoen etxe bat bergaitzen.**

## BIRGAITZEA: Etxeen zirujia

*Erakunde publikoek obraren balioaren % 20rainoko diru-laguntzak eman ditzakete*

**D**uela gutxi, etxebizitza ugari errehabilitatu dira herriaren erdialdean. Horrekin etxebizitza zaharrak berriztea ezezik erabilpen baldintzak hobetzea ere nahi izan da.

Lan horiek egiteko erakunde publikoek laguntzak eskeintzen dituzte, baina birgaitze lanen ardura etxebizitzaren jabeek hartu behar dute. Dirulaguntzak lortzeko, etxebizitzak 10 urte izan behar ditu, gutxienez. Etxebizitzak birgaitzeko orduan hiru kategoria bereizten dira: etxe zaharrak, duela gutxi egindako etxeak (50 eta 60ko hamarkadetan egindakoak); eta azkenik eraikuntza industrialak (lantegiak).

Deba Garaiko Mankomunitateak badu etxebizitza zaharrak birgaitzeko erakunde bat, Suradesa, eta bere zuzendaria Luis Laskurain bergararra da. Elkarte honek Deba Garaiko udaletan etxeak birgaitzeko dauden eskariak jasotzen ditu eta egon litezkeen laguntzen berri ematen du.

Laskurainek adierazi digunez, aintzinako etxebizitzek arazo ugari dituzte gaurko beharrei erantzuteko. "Historikoki alde zaharretako eraikuntzek jabe bakarra izan dute, baina orain eraikuntza batek jabe baina baino gehiago ditu eta kasu askotan inor ez da arduratu mantenimendu lanak egiteaz. Halaber, merkatuan produktu berriak hasi dira agertzen, eta alde zaharretako eraikuntzen egoerak txarrera egin du".

Birgaitze lanak ez dira alde zaharretako etxeeta-

ra bakarrik mugatzen, izan ere gure inguruan auzo ugari daude 50. eta 60ko hamarkadan eraikitakoak eta euren egoera, Laskurainek dioenez, ez da batere ona: "Auzo horiek egin zirenean eraikitzen jabegoa banatuta zegoen eta horrek mantenimendua egiteko oztopoak dakar, ardurak banatuak daude eta. Elorkizunean, eraikuntza industrialak berregokitzen jo beharko dugu. Gure ingurua industrialki txarrera doa eta ez da beharrezkoa gune industrial berriak eraikitzea. Egokiena daukaguna mantentzea eta gaurkitzeari izango litzateke".

### Eska daitezkeen diru laguntzak

Etxeari egoera onean eustea norberaren ardura da, baina eraikuntza askoren egoera oso txarra denez, Eusko Jaurlaritzak



Luis Etxabarri eta Julio Zabaleta, Artekale 25eko etxe barrua konpontzen ari dira.



Kanpokaldetik berriztua dago jadanik Artekale 25eko etxea.

eta Diputazioak dirulaguntzak eskeintzen dituzte.

Laguntza horiek bi bidetatik datoz, lehenak zuzenak izango lirateke. Horiek Eusko Jaurlaritzak kreditu kualifikatuen bitartez ematen ditu eta edozeinek lor ditzazke. Laguntza zuzenen barruan ere, kreditu kualifikatu horietan Eusko Jaurlaritzak interes puntuak subentzionatzen ditu eta badago aukerarik "a fondo perdido" lortzeko ere. Azken bi laguntza mota horiek lortzeko kontutan hartzen dira eskatzailearen diru sarrerak eta baita obraren garrantzia ere kontutan hartzen da.

Eusko Jaurlaritzak eskeintzen dituen laguntza horiek jasotzeko etxearen

kokapenak ere badu zeharrikusia. Alde Zaharrean daudenek kuantitatiboki eta kualitatiboki kanpoan daudenak baino laguntza handiagoak jasotzen dituzte. Baina Bergaran dauden etxe guztiek lor ditzazkete laguntzak, baldin eta 10 urte baino gehiago badituzte.

Horretaz aparte, laguntza horiek jasotzeaz gain zerga aitortpena egiterakoan beherapenak dituzte bergaitze obrak egitearren eta Bergarako Udalak ere tasak ordaintzeko orduan, obra horiek egiten dituztenei beherapenak egiten dizkie.

Kontzeptu guzti horiekin, bergaitze obrak balio duenaren %20a inguru ordain daiteke. Horiexek dira laguntzak.

## Etxe zaharra erosi berrizteko

Luis Etxabari eta Julio Zabaletak etxebizitza oso bat erosi dute Artekalea 25ean berrizteko asmoz. Etxea erosi zutenean egoera txarrean zegoen, nahiz eta egurra eta paretak egoera onean izan.

Etxabari eta Zabaletak euren proiektua bi epetan banatu dute. Orain etxearen hormak, teilatua, eskaileak eta patioa berritzen ari dira eta hori egin ondoren pisuak saltzeko asmoa dute.

Planak egitea erraza da, baina lanean hastera koan arazoak sortzen dira: "Moral aldetik oso gogorra da, lanean jotake ari zara baina ez duzu aurrerapen handirik somatzen. Gainera, horrelako obra aurrera atera-

tzeko enpresa bihurtu beharra izan dugu eta paper kontu asko dira" dio Etxabarrik.

Obra abendurako amaitzea espero dute eta eurek esan digutenez, proiektua dirua irabazteko pentsatua dagoen arren, zaletasunagatik ere egin dute. "Ordu pila bat ari gara sartzen, asteburu askotan ere lanean aritu gara eta, baina oso ondo ari da gelditzen. Paretan armarrak jarritzeko asmoa dugu eta horretarako Arellanoko (Nafarroa) hargin batengana jo dugu. Bestalde, etxearen beheko pisuan estraperlo garaiko arropak eta txanponak agertu dira eta orain Diputazio arkeologoak aztertzen daude. Gainera etxearen jatorrizko harriak eta baldosak ere mantenduko ditugu".

Obra egiteko, Udaltxeari baimenak eskatzeko eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzak jasotzeko, Suradesaren aholkularitza izan dute. Normala denez, Etxabari eta Zabaleta etxe zaharrak bergaitzearen alde daude. "Etxe-ari jatorriz dituen gauzak mantenduko dizkio-gu. Obra bukatzean etxe zaharren erakargarrisuna eta gaurko etxeen erosotasunak izango ditu. Prezio aldetik ere besteak baino merkeagoa iritengo da, baina orain krisia dela eta oso zail dago etxeak saltzea".



Luis Laskurain, Deba Garaiko Udal Elkarteko Suradesako gerentea.

## ZABALETA ERROTULOAK


Mota guztietako errotuloak.  
Fatxadak, eskaparetek...

Amilaga (Gasolinera ondoan) Tfnoa: 76 57 34

## Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULO  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua, 2 behea  
☎ 76 59 54 BERGARA



Appénit

**ARGAZKIAK  
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50

**NAHIKARI**

TABERNA

**MARGO  
ERAKUSKETA**

ABDON JUARISTIren  
IKASLEAK



Masterreka 20 ☎ 76 57 71

**REMENTERIA**

**Altzariak**

Egongelak / Logelak  
Aukera guztiak / Enkarguak

Artekale 6, Tfnoa: 76 13 29

**JOSE  
LUIS**  
eta  
**MIKEL**  
URTEAGA, 6

- Besaulki eta tresiloen konponketa eta tapizaketa.
- Etxebarruen dekorazioa


☎ 76 07 23 / 76 50 37 / 79 35 17

**Zer iruditzen zaizu Gaztetxea  
ixtea?**




**Maria Jesus Bergaratxe**  
40 urte, langilea

Gaizki, gazteek leku bat behar dutelako, zaharrak eta besteok daukagun bezala. Udalak konpondu beharluke arazoa.




**Antonio Gomez**  
20 urte, ikaslea

Ondo eta gaizki. Ondo drogak zeudelako eta gaizki hor zeudenak orain beste lekuren batetan bilduko direlako.




**Eduardo Fernandez**  
17 urte, ikaslea

Gaizki, orain biltzeko lekurik ez daukagulako. Lehen bertara joaten ginen, orain ez dugu ezer.



**Ane Elgero**  
32 urte, etxekoandra

Ez dut arazoa gehiegi ezagutzen baina lokalik ez badute, Udalak edo Diputazioak zedozer egin beharko luke.



**POL - POL TABERNA**

Tfnoa: 76 07 78

**DEPORTIVO TABERNA**

Tfnoa: 76 01 51



## *Ikasleen eguna*

Pasa den asteazkenean, hilaren 17an hain zuzen ere, Ikasleen Nazioarteko Eguna ospatu da instituto eta unibertsitateetan. Urtero bezala, jai giroa eta errebindikazioa bat eginaz ospatu da egun berezi hau. Euskal Herriko Unibertsitatea ikasleone errebindikazio puntu bat izan da aurtengo honetan ere. Munduko toki ezberdin askotan, denok ikasteko dugun eskubidea eskatzen da orokorki egun honetan, baina EHUan euskaraz ikasteko eskubidea oraindik ere errebindikatu beharra dugu tamalez.

EHU erdaldun hontan badirudi ez dagoela euskal hizkuntzaren lagun haundirik. Urteak joan, urteak etorri, bere ikasketak osoki euskaraz egin ditzakeen ikaslea pribilegiatua dela esan genezake. Tamalgarria bada ere, eskubide normalizatu bat izan beharko litzatekena salbuespen bat da oraindik ere.

Azaroaren 17ko beste salaketa bat, noski, tasen igoera izan da. Gaur egun ere ez da makala unibertsitateko ikasketak batzuri aurre egitea, eta gainera, badirudi egoera gero eta zailagoa izango dela. Horrela jarraituz gero, duela urte batzuk bezala, dirudunek ikasi ahal izango dute bakarrik.

XXI. mendearen atarian gaudela, EHU publiko eta euskalduna gero eta urrunago dago errealitatetik.

**Ainhoa Lete**



## *Bertso txapelketa arrakastatsua*

Euskal Herriko Bertsolarien txapelketa nagusiak berebiziko oihartzuna du. Une honetan lehen fasea burutuko da eta finalerdietan sartuko hamabost egun barru.

Txapelketa ikusmin handia sortzen ari dela garbi frogatu da igaro diren saioetan. Entzuleen artean gaztea gehiengoa eta emakumezkoa asko, ez ordea kantari. Bi emakumezko dira txapelketa honetan parte hartzen dutenak eta dagoeneko, Amaia Telletxeak lan bikaina egin du aurrerako txartela eskuratu ezin izango badu ere. Estitxu Arozenak Zumarragan du erronka. Biak nafarroako ordezkariak dira.

Bertsolarien txapelketetan gaiak zer ikusi handia izaten dute. Zernolako gaiak halako saioak ateratzen dira. Oraingo txapelketan azaldu diren gaiak benetan onak izan direla aitortu beharra dago. Beste puntu garrantzizkoa da bertsolari gazte multzo handia aurkeztu dela txapelketan. Gazte hauen artean asko Unibertsitatean ikasketak egiten ari direnak dira. Horrexegatik, orain arteko saioetan gordintasuna nabaritu da. Baina etorkizunari aurpegia emateko esanguratsua da. Azken orduan Jon Sarasuak uko egin dio txapelketari. Ez gara batere harritu. Garaiz adierazteko denbora izan du baina egin ez duenez Bertsolarien Elkarte haserre bizian ikusi izan dugu. Ez zaio falta arrazoirik.

Finala Donostian izango da abenduaren 19an goizez eta arratsaldez. Iaz Bizkaian izan zen esperientzia ikusita txapelketa honetan erabiliko den sistema ez zaigu logikoa iruditzen. Goiz parteko saioan egin behar litzateke zortzikotean entresaka eta arratsaldeko saiorako lau onenak laga. Arinagoa eta interesgarriagoa izango litzateke

**Andres Osa "Sakona"**

# ELKAR

Arruriaga 1, behea ☎ 76 58 16  
BERGARA

- FOTOKOPIAK
- ENKUADERNAZIOAK
  - Termo-enkolatuak
  - Burdineko espiralak
  - Plastikozko espiralak
  - Faszikuloak
- JENDEARENTZAKO FAXA
- PLASTIFIKAZIOA
- PLANOEN KOPIAK

## Kiroldegiko Taberna



Labegaraieta Tfnoa: 76 56 41

## EGUREN GESTORIA

*Maria Pilar Eguren Diez*  
Kolegiatutako administrazio gestorea  
Simon Arrieta enparantza 3, behea.  
☎ 76 21 65 / 76 24 45

# Beheko Taberna

*Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.*

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

## IZADI

**IZADI**  
PILI GISASOLA

Osasun eta Dietetikan  
espezializatutako zentrua

Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83

## IRUDI

**Erlojudenda  
Bitxitegia**

San Pedro 11  
☎ 76 51 65



## KONDE

PANADEROKUA




Burdiñate, 1 ☎ 76 12 31



### □ Bergararik Osakara

Bingen De Pedro, Pello Alberdi, Yoshiyasu Zenitani eta Ricardo Azkargorta margolariek igandera arte Kultur Etxean ikusgai duten margo erakusketa Japoniara ere eramango dute. Elgetan bizi den Zenitani japoniarraren bitartez, 1994ko martxoan, apirilean eta maiatzean Kobe eta Osaka hirietan antolatuko dute erakusketa eta dagoeneko Diputazioari diru-laguntza eskatu diote kuadroak eramanez, ahal izanez gero behintzat, beraiek ere bidaiari hori egiteko. Beraz, 1992an Ortonovon (Italian) gure margolariek egin zuten erakusketa kolektiboaren ondoren, Asian ere izango dute gure artisten berri 1994an.



### □ Skiko merkatua

Astelehenean bigarren eskuko skiko materiala saltzeko merkatu txikia irekiko da Pol-Polen. Hastear dagoen denboraldirako materiala prezio onean erosteko aukera izango dute ski zaletuek. Merkatua zabalik izango da azaroaren 22tik 29ra bitartean (astegunetan 19.00etatik 20.30etara eta astebukaeran 12etatik 14.00etara eta 18.30etatik 20.30etara). Bertan materialen bat saltzeko interesa dutenek Pol-Poleko bulegoetara jo dezakete. Besteok, badakizue, bueltatxo bat eman eta ea eskaintza interesgarriren bat aurkitzen duzuen...



## KORTA-ZAR

**Txokolategia**

*Pintxo eta ogibitartekoen  
espezialitatea*

**HEMENDIK AURRERA OSTIRALETAN  
GOIZEKO 9ETATIK ZABALIK**

Barrenlale 16, ☎ 76 20 62





□ **Egineko Mus Txapelketa**

Larunbatean jokatu zen Artatse elkartearen **Egineko Mus Txapelketako** Bergarako finala. 8 bikote aritu ziren lehian eta azkenean Aitor Muruamendiaren eta Jotaerre elosuarren osatutakoa nagusitu zen. Beraiekin batera beste 3 bikote sailkatu ziren igande honetan Hernanin jokatuko den Gipuzkoako finalerako: Angel Agirreazaldegi eta Inazio Pagaldai, Paco eta Pepe eta Enrike eta Iban. Suerte!!



□ **Dendaz denda**

**Amaia Agirre** eta **Eva Alberdi** osintxuar gazteak herriko komertzioetan euskararen egoera zein den jakiteko inkestak egiten hasi dira. Euskara Zerbitzuak merkataritza munduan euskara bultzatzeko kanpaina jarriko du martxan datorren urtean eta horretarako, SIADECO ikerketa sozioekonomikoen elkartearen bitartez, gaur egungo egoera ezagutu nahi izan du aurretik. Amaia Agirre eta Eva Alberdi komertzio (denda, taberna, banketxe, aseguru-etxeak etab. luze bat) guztietatik pasako dira datozen egunotan azterketa ahalik eta aberatsena egiteko.


**Zertan  
dibardute  
ba?**

OLABARRIA/ARRIETA



Xabier Olabarria eta Jose Arrieta Alai taldeko partaideak, Estatu Batuetan izango dira iganderarte Miarritzeko Ohianburu abesbatzarekin Augusta, St. Louis edota Nueva Yorken hainbat emanaldi eskeintzen.

MADURA



Madura elkarteak bere 25. urteurrena ospatuko du datorren igandean, azaroak 27. Hori ospatzeko, eguerdiko ordubatean meza izango da San Lorentzo ermitan eta bazkaria ordubietan.

**Siaska**

**Dena zure  
haurarentzako**

Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 39

**ITXASMENDI**

**Taberna**

Barrenkale 36  
Tfnoa: 76 50 64  
BERGARA

**IGARZA**  
**MERZERIA**  
**LENZERIA**

**D. IRALA 5**  
**Tfnoa: 76 24 88 BERGARA**

# Umore giroan

## Epe-epe

Ba zozian eibartar bat, ilunabarrian eta bizikletan, ez argi, ez freno, ez tinbre barik, eta alako baten arrapau dau plaentxiar bat. Onek, naiko minduta, diñotsa bizikletan zozianari:

- I, baiña, nun daukak argixa?
- Etxaukat.
- Eta frenua?
- Etxaukat.
- Tinbrerik be ez?
- Ezta orixe be!
- Bueno, baiña, eziñ zeban esan "epe-epe"?

## Uso asko pasau

Eiztari edo kazari purrukatua zan eibartar ura. Egun sentian juan zan usotara, baiñan, itxura danez, ez zeban suerte aundirik izan. Etxera, beintzat, uso bakar batekin zetorrela, lagun batzuk esan zetsen:

- Zer, uso asko pasau ditzuk?
- Ta kazariak, gerritxik zintzilika zekarren usua erakutsixaz, dintoise:
- Au ez, beste guztiak.

# ORAIN DELA 20-25 URTEKO NOTIZIAK



60ko hamarkadaren amaieran eta 70kooren lehen urteetan uguriak ziren hon eta hemen antolatzen ziren musikari berrientzako lehiaketak. Horietako bat Ariznoa dantzalekuak antolatzen zuena. Goian, garai hartan oso ospetsua izan zen Ameslariak taldea, orain dela 2 urte ateratako argozkian. Bergararrek ere, sarri aloitu zituzten Potzuko dantzaldiak.

## ARRAKASTA HAUNDIA LORTU ZUEN IZAR BERRIEN LEHIAKETAK

Jende asko bildu zen joan zen ostegunean Ariznoa dantzalekuan Izar Berrien Lehiaketa ikustera. Pasaia, Oñati eta Bergarako hiru kantarik hartu zuten parte lehiaketan, eta bakoitzak bi abesti kantatu zituen. Puntuaziorik altuena Mikel Ormazabalek jaso zuen, bigarren Fran-

cisco Marichalar pasaitarra izan zen, eta hirugarren Xabier Madina bergararra. Azkenak, gainera, berak sortutako letra ederrak azaldu zituen.

**La Voz. Alustiza.**  
1973-XI-16.

**Asier Madinabeitia, Ane Goenaga eta Josune Iñarrak**  
hemerrotekatik bildutako notiziak

# TABERNA ZAHARRA

## Jatetxea

### Bazkariak eta afariak

Tfnoa 76 21 21  
ANGIOZAR

## ileapaindegia

eder gela

## disdira

Masterreka 7 • Tfnoa: 76 00 55

# SUBIJAI

## Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41

# EDEL


## TAPIZDENDA

Etzerako artikuluetan aukerarik  
haundiena eskaintzen dizugu:

Alfonbrak, kortinak,  
kortinoiak, koltzak,  
edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar  
baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik  
egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14, BERGARA




**Zumelaga**

**JATETXEA**


**ADRIAN ARRESE-IGOR**

San Antonio 5  
BERGARA  
☎ 76 20 21



**ARGAZKI**

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



## ***GALDE DEBALDE***

**PACO URZELAI**

Azken boladan Maltzaga-Urbina autopista dela eta, aldeko eta kontrako ahotsak entzun dira. Bi talde ere eratu berri dira. Aldekoa, Eibarren sortu da eta bere izena **Maltzaga-Urbina Autopistaren Aldeko**

**Plataforma** da. Kontrakoa, berriz, **Deba bailara bizi-bizirik** izenburuaz eman da ezagutzera. Horixe da aurreko Galde Debaldeko erantzun zuzena.

PACO URZELAIk asmatu du eta bera dugu aste honetako irabazlea. Berarentzat, HERRAN ETXEAk emandako saria. ZORIONAK!!  
Besteok segi jokatzen!!

# **HERRAN ETXEA**

**Sukaldeko altzariak**

Matxiategi, 4. 76 37 53



**Elektragailuak, TB,  
bideoak, HIFI  
aparailuak.**

Matxiategi, 3. 76 12 22



**JANTZIDENDA**

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16



PACO URZELAik jaso du aste honetan HERRAN ETXEAK emandako saria.



**JANTZIDENDA**

Barrenkale 24 , Tfnoa: 76 10 16

Hurrengo Galde Debaldeko saria ZUBIKUAK emango du.

# Galde Debalde

## Aste honetako galdera:

Orain dela gutxi BERRIGARAN Epele eta Kanpazar lotuko duen errepidearen berri ematen genizuen. Lanak ondo badoaz, Gabonetarako, Natibitate egunerako, amaituta izango da. Alabaina, Gipuzkoa eta Bizkaia lotuko dituen tunela egiteko gehiago itxoin beharko dugu, datorren urtetik aurrera hasiko omen dira egiten eta obrak Bizkaiko Diputazioaren kontura joango dira. Hauxe duzue aste honetako galdera.

**Gipuzkoa aldetik tunel horretatik gertuen izango den bergarar baserriaren izena zein da?**



izena

abizena

telefonoa

**OHARRA:** Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke

# Bergarar gehienek amaitu zuten Behobia-Donostia lasterketa igandean

75	Basilio Aranburu	1:11:22	2538	Jose Mari Lezeta	1:35:43
95	Eugenio Allés	1:11:56	2542	Jose Mari Fernandez	1:35:43
195	Jabier Moreno	1:15:25	2588	Juan Balentziaga	1:36:06
273	Aitor Eraña	1:17:08	2614	Marian Santxorena	1:36:12
287	Anselmo Gomez	1:17:22	2632	Mikel Santos	1:36:19
417	Anton Barrutia	1:19:06	2710	Luis Mari Beistegi	1:36:44
446	Jose Mari Igarza	1:19:35	2725	Alex Muela	1:36:49
447	Karlos Lizarralde	1:19:36	2899	German Alberdi	1:37:56
522	Luis Mari Etxezarreta	1:20:43	2954	Karlos Telleria	1:38:10
531	Iñaki Andueza	1:20:48	2962	Bibiano Barquero	1:38:12
542	Imanol Garzia	1:20:51	2876	Martin De Pedro	1:38:19
568	Juan Martin Elexpuru	1:21:10	2983	Aiert Lizarralde	1:38:20
649	Jabi Ibarra	1:22:08	3056	Maria Rosa Agirre	1:38:53
675	Aitor Garzia	1:22:28	3108	Iñaki Alberdi Araizt.	1:39:06
763	Manu Diaz	1:23:17	3290	Gaizka Asensio	1:40:13
779	Matias Varela	1:23:26	3543	Roman Laskurain	1:41:30
831	Gorka Igartua	1:24:05	3679	Felipe Iñarra	1:42:33
916	Iñaki Legorburu	1:24:51	3846	Luis Goenaga	1:43:52
987	Luis Mari Alberdi	1:25:27	3877	Julian Zangitu	1:44:06
1060	Eduardo Jauregi	1:26:01	3935	Jesus Diaz	1:44:39
1076	Jose Arribas	1:26:10	3979	Jose Ignazio Garitano	1:45:04
1085	Xabier Barkero	1:26:13	3980	Jon Gabilondo	1:45:05
1119	Agustin Heis	1:26:29	4017	Fermin Hernandez	1:45:26
1168	Migel Anjel Larrañaga	1:26:58	4067	Alex Labaien	1:45:50
1243	Iker Etxebarria	1:27:34	4104	Gorka Manso	1:46:24
1265	Josu Otaegi	1:27:44	4180	Ander Epelde	1:46:55
1269	Mikel Alberdi Urriat.	1:27:45	4315	Jon Larrañaga Gantxegi	1:48:32
1295	Karlos Baleztena	1:27:58	4316	Luis Mari Sotil	1:48:32
1310	Jesus Mari Marzo	1:28:08	4319	Eñaut Uriarte	1:48:34
1322	Modesto Cáceres	1:28:26	4323	idoia Larrañaga	1:48:36
1549	Iñaki Zangitu	1:29:59	4325	Gorka Garitano	1:48:37
1633	Celestino Santos	1:30:25	4328	Jesus Kortaberria	1:48:39
1638	Juan Luis Aiestui	1:30:26	4337	Mikel Balentziaga	1:48:50
1645	Manu Gorospe	1:30:27	4345	Alfonso Ena	1:48:49
1676	Joan Ander Garitano	1:30:33	4431	Fernando Otaño	1:49:21
1714	Jesus Mari Labaka	1:30:46	4451	Karlos Zangitu	1:49:32
1995	Migel Anjel Larrion	1:32:29	4477	Jesus Jabier Galarraga	1:49:52
1997	Xabier Larrañaga	1:32:30	4527	Pako Alonso	1:50:16
2015	Jose Alberto Oregi	1:32:26	4623	Unai Idiarte	1:51:27
2216	Iker Larrea	1:33:49	4753	Mikel Eguren	1:52:52
2217	Jon Berasategi	1:33:50	4803	Jose Ramon Balzategi	1:54:25
2251	Mikel Etxaniz	1:33:52	4884	Marisabel Hurtado	1:55:58
2266	Josexo Marzo	1:34:01	5118	Jesus Aizpurua	2:03:13
2416	Asier Labaien	1:34:59	5124	Amaia Elorza	2:03:31
2536	Aritz Berraondo	1:35:42	5125	Jose Mari Berasategi	2:03:33
2537	Jose Angel Zabalo	1:35:43	5171	Juan Jose Aranburu	2:06:20

Sekula baino korrikalari gehiago aritu ziren igandean Behobia-Donostia proban. Guztira 6.000tik gora lagunek eman zuten izena, horietatik 90 bat bergararrak. Lasterketan parte hartu zuten bergarar eta antzuolar gehienak iritsi ziren helmugara. Aldameneko koadroan ikus ditzakezue horien izenak eta zein postutan eta zein denboratan amaitu zuten. Egunkariko zerrendetatik atera ditugu eta batzuen izenak ez ditugu topatu. Falta direnen datuak eskuratzen badizkiguzue kaleratuko ditugu beste batean.



## Espainiako Txapelketara

Ariznoa Gimnasia Erritmika taldeak Espainiako Txapelketarako sailkatzea lortu zuen larunbatean Bergaran jokaturako Euskadiko Txapelketan. Junior kategorian, Aurrera eta Ariznoak gutxieneko puntuazioa eskuratu zuten (8.60 puntu) eta beraz Amaia Arrieta, Ezozi Artetxeberria, Lorea Askasibar, Saioa Garitano, Itziar Lopez, Nerea Mendizabal, Amaia Ortiz eta Ana Sebal abenduaren 16tik 19ra jokatu den Espainiako txapelketan izango dira. Ariznoako arduradunek larunbatean Kiroldegian bildutako jendetzaren laguntza eskertu nahi dute.

## TXURRUKA AUTOAK

Taxi eta mikrobus zerbitzua.  
Ibilgailu berri eta erabilien salmenta.  
Era guztietako erreparazioak.  
Garbiketak, etab...

Aitz Iturri - San Lorentzo auzoa BERGARA.

☎ 76 12 36 - 76 09 30

Agentzia ofiziala



PEUGEOT-TALBOT

## GURIDI Altzariak

Era guztietako  
altzariak

Artekale 8, Tfnoa: 76 31 02




*Pertxa inauguratu zeneko eguna. 1976ko abenduaren 8a.*

**B**ergarako elkarterik ezagunenetakoa itxita dago hilabete batzutarako, hoshabetze lanetan dihardutelako. Aspaldian, herrian antolatutako ekitaldiren batera kanpotik etorritako musikari, kirolari, eta bestelako artista gehienei Pertxan egin izan zaie harrera. Elkartera joan ezin duten momentu hauetan, bertako oroitzapena izan dezaten inaugurazio eguneko erretratua dakarkiegu, 1976ko abenduaren 8koa.

**Ondorengoak ageri dira bertan:** Vicente Txintxurreta, Moises Altuna, Jabier Lazkano "Rubio", Mari Kontxi Eguren, Eugenio Zabala, Manuel Diaz "Puskas", Juan Egaña "Pitia", Inazio Alkorta "Jimi", Juan Mari Leturia, Gregorio Lazkano "Belek", Jose Mari Legazpia, Juanito Agiriano, Jabier Lazpiur, Claudio Garcia, Luis Mari Etxebarria eta Luis Mari Zabaleta. Aurpegia ikusten ez zaienen izenik ezin eman, jakina.

*Estepan Plazaola  
Argazkiak: Uribe*



**MEMESA**



ARRASATE ☎ 76 42 22 • ARETXABALETA

**ETXEBIZITZA**

**Garajea** hartuko nuke **alokairuan** Tokiederren. ☎ 76 52 45.

**Etxebizitza salgai** Iparra- girre kalean. ☎ 76 40 82.

**Pisua** hartuko nuke **alokairuan**. ☎ 79 83 50.

**Etxea alokatzen** da Osintun. ☎ 76 49 60.

**Pisua salgai** San Lorentzon. ☎ 76 27 35.

**Pertsona bat** behar dugu **Deustun** pisua osatzeko. ☎ 76 49 69.

**Pisu amueblatua** salgai Artekale 16an. ☎ 76 12 81.

**Garajea** hartuko nuke **alokairuan**. ☎ 76 25 33.

**Pisua alokatzen** da. Bulegoak jartzeko egokia. Merkea. ☎ 76 16 89.

**Bergaran pisua** betetzeko pertsona bat behar da. ☎ 76 55 88 / 76 56 67 (Salva).

**Pisua salgai** Artzamendi kaleko 13. zenbakian. ☎ 76 32 53.

**Garajea salgai** Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

**Etxea salgai** Masterrekalean. ☎ 76 48 30.

**Pisua alokatzen** da. ☎ 76 46 15.

**Etxebizitza salgai** Martokon. Merkea eta berriztua. ☎ 76 00 93.

**Garajea salgai** Bolun. 1.000.000. ☎ 76 23 37.

**Etxebizitza** (Martoko 4an) eta **garajea** (Ibargarain) salgai. ☎ 76 00 93.

**DENETARIK**

**Karabana bat** salgai. la berria. ☎ 77 04 98.

**Paseorako Peugeot** bizikleta salgai. ☎ 76 48 68.

**Ume kotxe bat** salgai. ☎ 76 02 00.

**Renault 21 TXE** bat salgai. 1988koa. Egoera onean. ☎ 76 38 68.

**Pultsera bat** galdu dut Leire izena eta 15-11-89 fetxarekin. ☎ 76 23 84.

**Nintendo bat** salgai (S. Mario Bros) ☎ 76 39 34.

**Kaminoko Miguel Mari Lasa bizikleta salgai**. 54a. Egoera onean. ☎ 78 70 04 (Iker).

**Opel Corsa Joy salgai**. Oso egoera onean. 3 urte. Prezio interesgarria. ☎ 79 54 46.

**Rapel berria salgai**. Peltz modeloa. Prezio onean. ☎ 76 18 94 (gauze).

**Gospel talde bat** osatzeko lagunak behar dira. ☎ 76 55 75 (Libe).

**Renault 18 diesel bat salgai**. Familiarra. ☎ 76 33 85 (iluntzean).

**Korredore Look** bizikleta salgai. Egoera onean. ☎ 76 64 62.

**Urrezko pultsera** galdu nuen larunbatean. Sarituko da. ☎ 55 15 06.

**Karabana bat salgai**. la berria. ☎ 77 04 98.

**LANA**

**OHO eta Ingeles** (maila guztiak) klaseak ematen ditut. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Geriatría** ikastaro bat egin dut eta pertsona zaharrak zainduko nituzke. ☎ 76 24 62 (Ana).

Esperientziadun emakume batek **gutxitu sikiko, elbarri edota pertsona zaharrak zainduko** lituzke. ☎ 76 53 25 / 21 34 31.

**Ingelesezko klaseak** ematen ditut. ☎ 76 26 63.

**Ingelesezko klaseak**. ☎ 76 31 36.

**OHO, REM eta LZ** klaseak. ☎ 76 24 31.

**Emakume bat** behar da etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. ☎ 762936.

**Ordenadorez** lanak pasatuko nituzke. ☎ 76 05 43.

**Arratsaldez ordu batzuk** lan egingo nuke. ☎ 76 21 39 (Rosi).

Latin, Euskara eta Frantses **klaseak**. ☎ 76 02 99.

**Hildakoak**

*Julian Sanz Cardamio*  
azaroak 9, 61 urte  
*Vicenta Gisasola Bilbao*  
azaroak 15

**Jaiotakoak**

*Aste honetan ez da Epaitègian jaiotakoren berririk jaso.*

**AUTOPULLMANS ARABA**

**Autobusak**

**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara**

ANGIOZAR ☎ 76 55 70



# ALLIANZ-RAS

Aseguru eta berraseguruak S.A.

- JUBILAZIO PLANAK
- ARRISKUASKOTAKOAK

- Enpresak
- Etxebizitzak
- Autoak
- Bizitza
- Familia
- Merkataritza
- Erantzunkizun zibila
- Istripuak



**RAS**

**DATORREN ASTETIK AURRERA ZABALIK**

Zurradero, 4 ☎ (943) 76 06 73 - 76 08 43 / Faxe (943) 76 06 73

## *ERA GUZTIETAKO BIDAIAK*


*Mundu osorako bidaiak*

*Ezkontza bidaiak*

*Edurretarara bidaiak*

*Ikasketa bidaiak*

*air  
europa  
konpainiaren  
agente  
ofiziala*



**HALCON**

**BIDAIAK**